

**EL CODIGO DA VINCI LIBURUAREN IPUINAK**

Azkeneko pare bat urteetan badaude salgai hainbat liburu honen antzekoak. Izenburuak beherago aitatuko ditut. Baina sarrera honetan ohar bat, mota honetako liburu guztientzat kontuan hartzekoa dena, gogoratu nahi dut. Liburuak espirituairen elikadura dira baina ez dute kalitate kontrolik janariak bezala eta propagandaren besoetan zabaltzen dira, sarritan ez duten edukian eta balioan oinarrituta. Argitaletxe haundiek ondo dakite hori eta euren probetxurako erabiltzen dute. Badira hitz batzuk erakargarriak direnak: ikerketa da bat. Beste bat, orain artean ezkutuan gordetako dokumentuak argira datozala liburu honetan edo bestean. Eta sekretu horren besotik eliza badator, katolikoa edo luteranoa edo anglikanoa, oraindino deigarriago bihurtzen da propaganda. Horri eransten zaizkio kristautasunaren barnean egon diran erakunde batzuk, sekretua eta ezkutuko jokaerak izan dituztenak. Eta honela koktela gustagarri bihurtzen da, libururaren benetako kalitatea ezagutu nahi ez duen irakurlearentzat. Tenplarioak edo 'Siongo prioretza' edo holakoren bat, eta gaurko liburuetan horretarako oinarriren batzuk eman dituen erakunderen bat, esaterako Opus sartzen dute. Eta holan plater gustagarri bat ateratzen dute baina guzurrez eta asmakizunez betea. 'Código...' liburu honek Opus sartzen du. 'Hori nobela bat da eta ez du garrantzia gehiegirik', esaten dute batzuk. Baina horrela azpian daukan

mezua errezago irunsten da. Eta kristinautasunari buruz, Jesusi buruz eta beste zenbait historiaren datoak goitik beherra asmatu egiten ditu. Nobela izanda ere gure gizartean onartuko genituzke honelako adibide batzuk esaterako?: nobela bat gorri-separatistek Gernika erre zutela kontatuz; Franko giza eskubideen alde atera zela eta ez zuela inor afusilatu gerran eta hurrengo urteetan, beste nobela baten. Kanpora joanda ere hartu daitezke adibide batzuk: naziek ez zutela konzetramentu itxiturarrik eraiki eta ez zeudela gas gelak; Katyngo hilketa alemanek egin zutela edo 'Artxipielago Gulag' ez dela inoz inon egon eta hori Soltxenyntzinen asmakizun bat dela; edo amerikarrek ez zutela A bomba Hiroshima eta Nagasakin jaurti; edo frantziarrek eta amerikarrek giza eskubideen arabera egin nutela Vietnamgo gerra; edo Irakeko gerra justiziaren araberazko gerra izan dela. Adibide gehiago jarri daitezke. Baina honelako nobela bat idatziko balu norbaitek, iskanbila ikaragarria sortuko litzateke. Eta horrelako liburu bat, gezur, manipulazio eta egilearen zitalkeriaren adibide nabarmena bihurtuko litzateke. Ba neurri bardina dago gezur guztientzat.

'El Código da Vinci' liburuaren antzeko beste batzuk: La cena secreta; Angeles y demonios; El último merovingio (una nueva revelación sobre el secreto mejor guardado de la Iglesia católica); La sombra del templario; Los Iluminati (la trama y el complot); Iluminati (los secretos de la secta católica más terrible); Assassini (el papa Borgia les dio el poder); El código secreto; El número de Dios (el secreto que explica las catedrales góticas); La santa Alianza (cinco siglos de espionaje vaticano); La ecuación de Dante; El enigma sagrado; La revelación de los templarios. Liburu hauek guztiek sarreran aipatu ditugun osagarri batzuk dituzte. Eta gainera kristautasunaren lehenengo gizaldietako gnosis deritzan herejiaren ideetan oinarritzen dira eta apokrifikoak hartzen dituzte iturri. Eta gainera apokrifiko hauek manipulatu egiten dituzte ura norbere andaparara eramanez. Hainbat urtetan esan izan da Gernika 'gorri' eta 'separatistek' erre zutela. Oinarri hori hartuta nobela bat sortu daite-

ke. Hori ez da 'ziria sartu' edo 'memoria' Deiako kazetari batek idazten duen bezala, 2005.03.26ko alean. Memoria gertakizunen izaeran onarritu behar da, ez norbaiten asmakizunetan. Gernikako hori nork eta non esan zuen jakiteko ez dago besterik, 'Aldaba' aldizkariaren, 1987ko martxo-apirileko 26. zenbakian, 218-233 orrialdeetako bibliografia begiratzea baino. Eta Bertone kardinalaren eritzia ez da eleizaren eritzia eta irakaskintza. Ziria sartzea ere ez da guzurra esatea. Guzurra, guzurra da besterik barik.

### **'El código da Vinci' liburuaren oinarriak.**

Nobela honen oinarriak Testamentu Barriko liburu apokrifo batzuk dira eta ganera arbitrarioki aukeratuak, egilearen komenentzira. Emakumismoak gizartean duen indarra kontuan hartzen du eta hortik asmatzen ditu Jesús eta Maria Magalalenaren arteko ezkontza eta emakumismoaren indarra erlejinoan. Gaurko emakumeen igotze honek ganera tirabira bat sortu du Batikanoaren eta teologari batzuen eritzien eta gizartearen eritzien artean. Gizarteak onartu du emakumeak politikan, ekonomian, irakaskintza eta bestelako bizitza arloetan gorengo mailetan ardura handiko betebeharrak hartzea eta Batikanoak ezetz biribila eman dio emakumeen apaizgintzari. Dena den, galdera eta arazo berri hauek ez dira konpontzen Dan Brown-ek adierazi nahi duen bezain erraz. Idazle honek erabili duen beste iturri bat Gnostizismoaren dotrina da. Gnostizismoaren idea batzuk hartu, apokrifo batzuetako testu batzuekin nahastu, nobelako pertsonaiak eta historia bat egileak berak asmatu eta horiek denak koktel baten sartuta hor atera du nobela hau. Doubleday argitaletxe indartsuak ikaragarriko marketin lana egin du eta 6 miloi aletik gora saldu ditu mundu guztian. Beste dato batzuk ere kontuan hartu behar ditugu. Batikanoak Irakeko gerraren kontra agirian eta argi hitz egin du. Hurbileko historiari begiratuta eleizaren kon-

tra gauza batzuk garai konkretu batzuetan argertzen dira haize bolada batzuk bezala. Gero ahaztu eta handik urte batzuetara berriz agertzen dira. Beste gauza batzuk ostera ez dira gogoratzen. Badira gertakizun historiko anker batzuk 'mito' bihurtu direnak eta beste batzuk ahaztuta uzten direnak. Oroipen ofizialak 'ahaztu' egiten ditu. Esaterako Auschwitz gogoratu da eta bertan suntsitutako judutarrak, baina inork ez ditu aipatu naziak suntsitu zituzten homosexualak, eta ijitoak. Eta hauek ere 400.000 eta 600.000 izan ziran gutxienez. Eta ea inork ere ez du oroitu Dresde txikitu zuen amerikar eta ingelestarren bombardaketa. Eta hiri hori ez zen militar gune bat eta 1945ko otsailaren 13an gertatu zen.

Zer dira liburu apokrifoak? Izen hori grekeratik dator eta idazki 'ezkutuak edo misterioitsuak' esan gura du. Apokrifoak judutar erlejinoko eta kristinau erlejinoko idazle batzuk sortu zituzten eta badute nolabaiteko lotura bat gure Bibliako liburuarekin. Baina ez eleiza katolikoak ez eleiza protestante batzuk ez dituzte hartu liburu kanonikotzat. Eta judutarrek ere euren Bibliatik kanpo uzten dituzte apokrifo hauek. Liburu bat 'kanonikoa' dela esan gura du liburu hori arau edo erregela bat dela kristinau baten bizitzarako, liturgiarako eta dotrinarako. Horrela hartu zituzten lehenengo kristinauek Testamentu Barriko eta Zaharreko liburuak, baina ohituraz betetzen zuten hori lege bihurtu zen IV. gizaldian ekialdeko eleizarako San Atanasioren bitartez. Aurretik zetorren jokaera horri santu honek ofizialtasuna eman zion. Liburu apokrifoen egileak anonimak ziran eta idazten zutena ez zen agirian irakurri eta zabaltzeko. Bakarrik taldean sartuta zeudenak irakur zezaketen eta ezagutu liburuaren edukina. Hori alde batetik erlejino misterikoetan gertatzen zen. Bestalde bai judutarrak eta bai kristinauak txarto ikusiak ziran Erromatarren munduan eta euren liburu, batzar eta liturgia agirian ospatzea oso arriskutsua zen eta horregatik ezkutuan ospatzen zuten. Ezkututze hori apokrifoez ere bereganatu zuten askotan judutar erlejinoaren edo

kristinau erlejinoaren kontrako dotrinak eta ohiturak erakusten zituztelako. Apokrifok asko galdu egin ziran. Beste askoren zati batzuk baino ez dira iritxi guganaino. Eta azkenik osorik heldu direnak ere badaude eta hainbat dira. Apokrifok era bitakoak dira. Batzuk Testamentu Zaharreko apokrifok dira, hau da T. Z.rrerko liburuekin lotura bat dutenak. Eta besteak Testamentu Barriko apokrifok. Zehaztasun gehiago nahi duenak ikus beza *Diccionario Enciclopédico de la Biblia*, Herder, Barcelona, 1993. Apokrifok hauek batzuk idazki bezala ezagunak ziran 1945 baino lehenago. Baina 1945 eta 1947 bitartean, noiz zehatz ez dakigunarren, Egiptoko Nag Hammadi herrixkaren ondoan papiro mordo bat agertu zen. Horiek denak apokrifok dira eta gnostizismo dotrina kutsukoak. Dena dela hemen agertu ziran testu biren antz handiko beste kopia bana 1896an El Kairon erosi zituen Berlingo Museoak eta han daude: 'Mariaren ebanjelioa' (Maria Magdalena edo Magdalena da) eta 'Pedroren eginak'. Nag Hammadi izenarekin gelditu dira papiro hauek, beste ondoko herrixka baten agertu ziranarren. Papiro hauek lehenagoz J. C. Doresse eta H. C. Puech frantziar adituek aztertu zituzten. Baina gero beste ikerlari asko ibili dira azterketa lanetan, batez ere ingelesera eta alemaniera hizkuntzetakoak. Hemen, papiro hauen artean dago 'Feliperen ebanjelioa', *El Código da Vinci* liburuaren oinarrietako bat. Ebanjelio hau Nag Hammadi II-3 atalean dago 51-86 orrialdeetan eta honako hau da bere edukia: badira bertan esakuntza edo perikopa batzuk Valentin herejearen dotrina jarraituz, erlejinoaren ikuspegi femenino edo emakumezkoa azpimarratzen dutenak. Nag Hammadiri buruz gehiago ezagutu gura duenak lehenago aitatu dudan Diccionario horretan aurki ditzake eta bertan aipatzen dira egin diren itzulpenak eta argitalpenak. Beraz testu hauek ez daude inongo toki ezkutu baten gordeta.

Badago beste hitz bat azaldu behar dena 'Código' hori ulertzeko. Gnostizismoa da. Dotrina eta mogimentu hau Grezia eta Erromako gizartean sortu zen Jesukristo jaio baino 2-3

gizaldi aurrerago. Sekta asko zituen. Baina sekta guztiek sinisten zuten bazutela Gnosis eta ezaguera ezkutu bat izadiaren sorrerari buruz eta pertsonaren izaera eta patuari buruz. Euren dotrinaren arabera pertsonak arima hilezkorra eta gorputz hilezkorra ditu osagai bezala. Pertsona kosmogonia baten dago eta kosmos edo izadi hori demiurgo batek eraiki du. Demiurgo hau Jangoikoa baino beheagokoa da eta batzuentzat 'Nous' edo adimena da; beste batzuentzat 'Zoe' bizitza, eta beste sekta batzuentzat 'Phos', argia. Izaki handiena edo Jangoikoa eta izadiaren artean baziran beste izaki batzuk 'eon' izenekoak Gnostiziamoarean barri batzuk bagenituen guraso apostolikoak deitzen diran idazle kristinauen eskutik. Baina Nag Hammadiko papiroak agertu ziranean, asko aberastu ziren iturriak kristinauen artean zabaldu zen Gnosis dotrina ezagutzeko. Gnosis deitzen dan dotrinan maisu batzuk zeuden. Eta maisu horiek ematen zuten dotrina bat, eta apurka apurka sartzen zituzten jarraitzaileak euren dotrinak zituen alderdi eta zeremonia ezkutuetan. Lehenengo kristinauen artean ere bazegon ohitura hori. Gnostizismoak bikoiztasun metafisikoa eta bikoiztasun antropologikoa onartzen zituen izadiaren eta gizakiaren izaera azaltzeko. Bikoiztasun metafisikoa da printzipio bi kontrajarriak daudela, onaren eta txarraren printzipioa. Eta bikoiztasun antropologikoan beste printzipio bi kontrajarriak daude: arima, ona dan printzipioa, eta gorputza, txarra dan printzipioa. Lehenengo kristinauen artean idea hauek sartu eta batzuk onartu zituzten baina sustraia antxinago daude. Kristoren aurretik bizi izan zen Platon filosofoaren pentsakeratik datoz. Platon hau 428an Atenasen jaio zen Kristoren aurretik eta 317an hil. Bikoiztasun ezezkor honek indar handia izan zuen Greziako pentsakeran Jesukristoren garaira arte eta geroago. Honelako ikuspegi ezerkor eta ilunak Greziako kulturaren indarra zuen norbere patuaren ideari ere lagundu zion. Puech adituaren berba batzuk aipatuko ditut itzulita. 'Lur mespretxugarri honetan gnostikoak patuaren pisu basatiak zapalduta sentitzen du bere burua, denporaren mugen barruan dago,

gorputzaren eta materiaren mugen barruan eta tentaldi doiloren menpean... Sentitzen duen salbamen baten beharrianak derrigorrezko eskabide bat jartzen dio bakoitzari, eta uste du erantzuna, gutxienez teorikoki, ezaguera ekintza batzuk eta norbere burua ezagutzen duenaren kontzientziak emango diola'. Hortik Gnostizismoak uste du ezaguera perfektoa dela salbamena. Eta horrekin batera errito batzuk gehienetan ezkutak eta misteriotsuak onartzen ditu. Lehenengo kristinauek ezkutuan ospatu behar zituzten sakramentuekin badu honek lotura pixka bat. Platonen eta bere jarraitzaileen filosofiatik, mito handi bi sortu zituen: bat kosmologikoa, gizakiaren erorketa gogoratzen duena, eta bestea, gizakiaren salbamena dakarrena. Gnosis honek ardar desberdinak izan zituen: Grekoen gnosisa, kristautasunean eragina izan zuena; paganoen gnosisa eta kristinauen aurreko gnosisa. Judutarren erlejinoan ere hazi zen gnosis hau. Jesukristoren gizakundea azaltzeko eta nolabait ulertzeko sistema egokia zen gnostizismoa. Eta era berean sakramentuen adierazi batzuk eta azalpena emateko. Horregatik errez zabaldu zen Jainkoaren mezua azaltzeko era hau 100. urtetik hasita kristinauen artean. Baina benetako indarra eta idazkiak 150 tik aurrera zabaldu zituzten. Gnostikoen artean ezagunenak Basilides, Zerinto, Alejandriako Kelemele, Balentin eta Marziano dira. Jesusen dotrina zuzena gorde zutenen artean Ireneo, Tertuliano eta Hipólito gutxienez ezagutzen ditugu. Baina gehiago ere badaude. Gnostikoei jarraituz oso erreza da Jesukristo Jainkoa baino beheiago jartzea eta gizon berezi bat zela aitortzea. Hori da 'El código da Vinci' liburuak egiten duena esanez Jesus Maria Magdalena-rekin ezkondu zela kontatzen duenean, edo M. Scorseseren pelikulak 'Jesusen azkeneko tentaldia' Jesus kurutzetik jetxi eta Maria Magdalenarekin dijoala kontatzen duenean edo J. Sabinaren kantuak, Jesusen eta Maria Magdalenaren arteko maitasuna abesten duenean.

Gnostizismoa nahikoa arin sartu zen kristinauen artean. S. Joanen ebanjelio, Apokalipsis eta eskutitzetan lorratzen bat

edo beste agertzen da. Sasi-Klemente baten idazkietan agertzen da eta Alejandriako Kelementak ere badu kutsadura pixka bat. Beranduago hortik manikeismoa sortu zen. Eta erdi aroan ere Frantzia sortu zen kataroen herejiaren eta sektaren oinarrietako bat izan zen. Nag Hammadiko idazkiak gutxi gora-behera 150an eta beranduago burutuak dira. Gnostiko ezagun bat Balentin da. Ez dakigu noiz jaio zen baina 161ean hil zen seguruenik Txipren. Ez da guztiz zihurra baina badago nahikoa susmo Alejandrian jaio zela esateko (Ejipton). Platonismoa ikasi zuen eta era berean Filon judutarren ideak ere bai. Gero kristinau egin zen. Tertulianok dino gotzain egin ez zutelako kristinau fedea itxi eta gnostikoen herejiara joan zela. Higinio aita santu zela Erroman egon zen. Inguru horretan 142an eskomunikatua izan zen. Gero Txiprera joan zen eta 158 han zegoen. Seguruenik hantxe bertan hil zen 161an. Nag Hammadiko idazkiak 300 eta 350 bitaratekoak dira gutxi gora-behera. Gnostizismoari buruz ikerketa eder bat A. Orbe S. J. euskaldunak argitaratu zuen tomo bitan, BAC argitaletxean 1976an.

El código... izeneko liburu honi zuzenean oratu aurretik badago beste dato garrantzitsu bat gogoan hartu behar dena. Ebanjelio kanonikoak, Mateo, Markos, Lukas eta Joanenak 55. urtetik 100. urtera bitartean idatzitza daude. Hori Dan Brown baino askoz aditu handiago direnak Biblia kontuetan aho batez esaten dute, bai katoliko eta bai protestante luterotar edo anglikanoek. Jesusen irakatsiei buruz liburu bat aipatzekotan, erraza bilatzeko, J. Antonio PAGOLAK idatzitako bat badago: *Jesús de Nazaret*, Idatz, Donostia. Badiu 8 argitalpen edo gehiago. Honen laburpen bat ere osatu zuen 70 orrialde dituen. Gehiago sakondu nahi duenak eta ezaguera apur bat eta denpora baldin badu hartu dezake hurrengo liburu hau: Gerd THEISSEN – Annete MERZ, *El Jesús histórico*, Sígueme, Salamanca, 2000. Hau da ikerketa bat ez 'El código da Vinci'. Eta norbaitek nobela bat irakurri nahi badu Jesusen bizitzari buruz, Gerd THEISSEN berak idatzi zuen bat oinarri historiko



sendoak dituen: *La sombra del Galileo*, Sígueme, Salamanca. Liburu oinarriak eta sendoak irakurri nahi dituenak Jesusi buruz, ez orain 1800 urteko ipuinak, badu aukera 'Sígueme' Salamancako argitaletxearen liburuaren artean. Edo 'Verbo Divino' Lizarrako argitaletxeak ere baditu argitaratuta hainbat liburu Biblia eta T. Barria ulertzeko, errazago irakurtzen diranak.

### **'El código...' liburuaren huts nabarmenak**

Nik hemen aipatuko dut 'El código da Vinci' Bartzelonako Urano argitaletxeak atara zuena, 2003an.

Dan Brown nobela honen egileak laburbilduz printzipio batzuk azpian erabiltzen ditu.

1. Ebanjelio kanonikoak, Mateo, Markos, Lukas eta Joan ez dira zaharrenak eta Jesusengandik hurbilenak. Gnostikoen ebanjelioak dira zaharrenak eta horiek orduko kristinauek ezabatu egin zituzten. Esaterako 'Feliperen ebanjelioa' edo 'Mariaren ebanjelioa'. Eta lau ebanjelio kanonikoak 80 ebanjelioren artean aukeratu zituztela, gnostikoenak suntsituta. Hau baten baino gehiagotan esaten dute nobelako protagonista diren Teabing eta Langdon-ek. Adibide bat 288. orrialdean dator. Baina ezagutzen diran 'ebanjelioak' edo Jesusen bizitzak 20 bat dira bakarrik. Eta gnostikoen ebanjelioak 150tik onantza eta batzuk 250-300. urtetik onantza idatzita daude. Hau edozein biblialari adituren eritzia da, katolikoa izan, luterotarra izan, anglikanoa izan edo beste nonogoa, baina benetako Testamentu Barriko gaietan aditua bada. Dan Brown-ek gnostikoen ebanjelio bi horiek hartzen ditu oinarri bezala, baina gero ebanjelio gnostikoen dotrinako printzipio garrantzitsu bat ahazten du. Gnostikoentzat sexua txarra da gorputzaren emaitza bat delako. Baina nobela honetan sexua bide bat da femenino sakratu irix-

teko. Eta idea hau luze eta zabal erabili arren bere nobelan, protagonistak esaten du bi ebanjelio gnostikoak ez dituela manipulatu (318. orrialdean). Gainera biblialarien artean badago printzipio bat axioma bihurtu dena: zenbat eta judutar kutsu handiago izan idazki batek, hori kristinautasunaren garai zaharrenetatik hurbilago dago.

2. Iturri historiko zaharrenetan Jesus gizon edo profeta berezi bat da, baina Jangoikoa zela Nizcako kontzilioak esan zuen 325. urtean. Dan Brown jaunak ez daki grekerarik antza, theos (Jangoikoa) zazpi bider gutxienez agertzen delako Testamentu barriko idazkietan eta 'ho kyrios' (Jaun bakarra) be hainbat bider agertzen delako Jesusentzat berarentzat erabiltzen dutelarik. Eta horreek denak 100. urtean eta arinago idatzita daude. Nizeako eta georoago Kalzedoniako kontzilioek kristinauek sinisten eta aitortzen zutenari forma bat eman zioten Jesusen jainkotasuna eta gizatasuna aitortuz eta fede zuzena zenari forma bat emanez. Baina sinismen hauek kontzilio biok baino lehenagotik datoz. Ez nobelak 290. orrialdean di-noan bezala.

3. Konstantino enperadoreak suntsitu zituen zaharrenak ziren ebanjelio gnostikoak eta kanoniko lez Mateo, Marcos, Lukas eta Joanenak ezarri zituen eta Jesusen jainkoatasuna bere aginduz ezarri zen. Testamentu Barriko liburu sakratuen zerrenda edo kanona kristinauen artean arazo barik onartu zen. 'Kanon' berbearen barruan, liburu zerrenda bat baino garrantzi handiago du erregela edo arau bat dela, sinisteko eta bizitzan betetzeko. 96. urtean Erromako aita santu Kelemen-tek erizpide bat jarri zuen kanoneko liburuetarako: Jesusen irakatsiak eta apostoluenak, buruz gogoratzen zirenak edo idatziz, Testamentu zaharrekoen pareko baliozkoak direla aitortzen du. Bernaberen 'Epistolan' (70-100 bitartean idatzia) eta 'Didakhe' idazkian antzeko idea jarraitzen dute. Antiokia-

ko S. Inaziok (35-107) Jesusen erakutsiak arau bat direla kristinauentzat aitortzen du, eta era berean profeten eta apostoluen irakatsiak. Arazoa sortzen du Marzionek 144an. Testamentu zaharra osorik baztertzen du eta T. Barriko ebanjelio bat eta apostolu bat bakarrik onartzen du, hau da Lukasen ebanjelio laburtu bat eta Pauloren idazkiak. Honen eritziz, eleizbarruti guztiek ez zuten inolako obligaziorik T. Barriko idazki berdinak erabiltzeko, Lukasen ebanjelio hori eta Pauloren idazkiak kenduta. Ireneok eta Justinok erantzuten dute ezetz, besteak ere liburu sakratuak dirala. Eta holan eleizbarrutiak eusten diote tradizioari eta azkenik Muratoriren kodi-goak (165-185 bitartean) zerrenda zehatza jartzen du. Geroago zalantza batzuk sortzen diranean, ekialdean Alejandriako S. Antanasiok (367an) ekialdeko liburu sakratuen zerrenda jartzen du, eta mendebaldean Damaso aita santuaren dekretuak Erromako sinodoan erabakita, zerrenda bardina ezartzen du mendebaldean (382an). III. gizaldiaren amaieran liburu sakratuen kanona erabakita gelditzen da. Luterok berak ere kanon hori onartuko zuen nahiz eta liburu batzuei balio gutxiago ematen dien: Ebertarren epistola, Santiago eta Judasen epistolak eta Apokalipsis. Muratoriren kanona jarri zenean Konstantino bizi ere ez zen bizi, Nizeako kontziluaren erabakiak gotzainek erabaki zituzten, ez Konstantinok. Honek Nizeara kontzilia deitu zituen gotzainak, ekialdeko lurralde hauek eskuratu ondoren eta kontzilioaren buru izan zen. Baina erabakiak gotzainek hartu zituzten eta eleiza desbardinetan sinistzen zutena, eleiza osorako jarri zuten. Aurretik zetorren dotrina zen bada. Kanona ezin zezakean erabaki Konstantinok 367an hilda zegoen. Konstantino Naisus-en jaio zen Goi-Mesian 274an eta Achyron herrian hil zen 337an, Nikomedia ondoan. Bere kristinau egitea fedea zabaldu zedin laguntza bai izan zen, baina erabakiak gotzainek hartzen zituzten.

4. Jesus Maria Magdalenarekin ezkontuta zegoen. T. Barrian ez dago ez aipamenik ez susmorik ere barri honi buruz.

Jesusek Pedro ezkondua aukeratu zuen bere laguntzat eta seguruenik beste apostoluren bat ere ezkondua zen. Eta emakumeekin harremanetarako ez dauka arazorik. Sikengo putzu ondoan duen elkarrizketa harrigarri samarra da bere ikasleentzat. Ezkontza nahastuta harrapatutako emakume bat farisearrek ekartzen diotenean, judutarrentzat guztiz ezohizko jokaera hartzen du. Eta gainera emakume bat ezkondua bazen, senarraren izenarekin agertzen zen. Joana Chuzaren emaztea dela esaten da. Marria Joserren emaztea. Baina gure Brown jaunak adituek esaten dutena alde batera itxi, eta Feliperen ebanjeliora jo du. Ebanjelio hau 275-300 bitartean idatzita dago. Eta honelako perikopa bat dauka hutsune batzukin: 'Maria Magdalena... lagunak [maite zuen] bere ikasle [guztiek] baino gehiago eta musu [ematen zion ahoan sarritan]. Kako laukidunen artekoa Dan Brown-ek asmatu du hutsuneak betetzeko. Holako testu hain labur batekin eta ganera zati asmatuak dituenarekin ezelako frogarik ateratzea larregi da. Argitasun gehiago nahi duenak irakur beza Ben WITHERINGTON III, *Una respuesta definitiva al Código da Vinci*, Ed. Andamio, Bartzelona, 2004, 84-95 orrialdeetan. Edo Sígueme argitaletxeak plazaratuta dituen edozein ebanjelioren iruzkinak.

5. Jesusek ezkondua behar zuen judutar zintzo bat zelako. Judutarren artean ezkondua izatea eta semealaba asko izatea Jainkoaren bedeinkapenen ezaugarri bezala ikusten zen. Baina Biblian agertzen dira ezkongabe bat baino gehiago. Joan Bateatzailea bera, Elias eta seguruenik beste profetaren batzuk eta beste batzuk. Ganera T. Barriaren helburua ez da ordura arte zeuden jainko eta jainkosen ordeztuak jainko bat iragartzea. Kristinauak talde txiki bat ziren eta beste era bateko Jainko bat iragartzen zuten, jainkoz eta jainkosaz betetako erromatarren gizartean. Jesusen Jainkoak ez dauka femenino sakraturik ez maskulino sakraturik. Paganoen Olimpoa baino askoz areago dago eta gure kategoria txikiekin

neuritu ezin daitekeen norbait da. Orduan gure neurri kaxkarraren barruan ezin da sartu hain haundia den Jainkoa. T. Berrian 'berriz' jaiotzea da garrantzitsuena. Amaitzeko 'Código...' hau denpora pasarako liburu egokia izan daiteke, baina asmakizunez betea.

Orduan ez da nobela historiko bat ere, egileak asmatutako ipuin batzuk kontatzen dituen baina, antxinako paganismoa, gnostizismoa eta erdi aroko legenda batzuk nahasiz. Eta ezin daiteke ikerketa sakon bezala hartu.

6. Leonardo da Vinci margolariaren inguruko asmakizun batzuk. Da Vinci deitzen du beti gure nobelagileak. Bere izena Leonardo da. Eta arte liburu guztietan izen horrekin agertzen da. Zergatik ez du erabiltzen izen hori Dan Brownek? Piero baten sasikumea izan zen eta Da Vinci Florentzia ondoko herritxo baten jaio zen. Hemen esaten dituen gauza batzuk bere biografiari buruz oker daude. Homosexuala zela esaten du, baina akusazio hori juezak ere ezin izan zuen frogatu, behin zeozer egin omen zuela-eta juezaren aurrera eraman zutenean beste hiru lagunekin. Liburu honek dio kristinau gai asko gartu zituela bere margolarigintzan. Dozena bat lan ezin da esan asko direnik. Leon X aita santua izan zen bere mezenas, baina tarteka egiten zuen lan berarentzat. Bere zientzi alderdia lantzen ematen zuen denpora asko. Herejea zela ere esaten du, herejeak basoan hazten diren perretxikoak balira lez. Eritzi kritikoak elizari buruz askok zituzten eta hakoitzak bere erara azaltzen zituen. Loiolako Inaziok Jesusen lagundia sortu zuen eta Migel Angelek aita santua eta kardenalen bat inperuan sartu zituen Sixtinako fresko bikainean. Haitzetako Ama birjinnaren kuadro bikainari okerreko adierazi bat ematen dio bere komenentzirako. 'Magoen gurtzea' izeneko koadroan be azpian beste zerbait margotu zuela dio Brownek. Orduan margo baten gainean beste bat egitea oso normala zen eta horregatik berriztatzaileek nahikoa zeregin izaten dute gaur. 'Mona Lisa'

edo 'Gioconda' kuadroari be adierazi berezi bat bilatzen dio Brownek. Egiptoko jainkoekin erlazionatu zuela erretratu hau dio. Baina 'Mona Lisa' izena Leonardo hil eta gero bere biografo batek jarri zion. Gainera Leonardok izenik gabe uzten zituen bere kuadroak. 'Azken afaria' kuadro famatuan ere Dan Brownek Maria Magdalena ikusten du. Margo kritikaririk ez dago munduan, Brown bera kenduta, horrelakorik ikusi duenik. Gainera Leonardok berak 'Pintatzeko era' bere liburuan argi adierazten du pertsona bakoitza bere adinaren arabera eta adinari dagozkion kalitateekin irudikatu behar dela. Leonardo pentsakera mailan ere ezaguna da eta Galileo eta Baconi bidea irekitzen die. Siongo prioretzako maisu bat izan zela beste asmakizun bat da.

7. Qumraneko idazkiak eta Nag Hammadikoak kristinauen testurik zaharrenak dira. Hau 305. orrialdean jartzen du. Baina goitik beherako asmakizun bat da. Testu horien azterketa kritikoa eta argitalpenaren ardura dutenek ondo dakite hori ez dela horrela. Agertu den bakarra da Qumranen esate baterako, Isaiasen zati batzuen kopia agertu zela eta kristinauen, judutarren eta protestanteen Bibliako testuarekin berdina dela. Horrek adierazten duena da kopiagileak fideltasun haundiz betetzen zutela euren lana, kontuan harturik orduko kopiatzeko sistemak, eskuz idatzita eta papiroetan. Eta Qumraneko testuen argitalpena hainbeste luzatu bada, ez da izan inork galarazo dituelako, ikerlariak euren artean asarratu ziralako baino. Historia horiek adituek ondo ezagutzen dituzte izen eta abizenekin. Gero Dan Brown-ek Opus ere tartean sartzen du. Gaur deigarria da datu hau irakurlearentzat eta egileak hau ere sartu du saltsan. Baina Opusen barruan danetarik dago, toki guztietan bezala. Badaude pertsona zintzoak eta badaude agintaritzaren bitartez eta diruaren bitartez Jesusen ebanjelioa zabaltu nahi dutenak. Baina Jesusek berak ez zuen hartu bide hori. Ez zen jaio Erroman, Palestinan baino eta han aukeratu zituen be-

re ikasleak eta lehenengo jarraitzaileak. Eta ez zituen hartu jarraitzaile bezala Erromako aberatsak, jakitunak eta agintariak. Opustar batzuk bezelakoak eta kontzientziak manipulatu nahi izan dituztenak beti egon dira eleizaren barruan, baina kristianu bakoitzak ere burua badauka eta argitasun batzuk hartu ditu bizitzan erabakiak hartu eta bide batzuetatik joateko. Jesusk argi erakutsi zituen epaitzeko neurriak Mateoren 25. kapituluan. Eta Dan Brown, Opuskoak, aita santua eta danok neurri horiekin neurtuak izango gara.

*J. M. Etxebarria*